

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1704

*EBAZPENA, 2022ko apirilaren 5koa, Kulturako sailburuordearena, arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak emateko balorazio-batzordeetako kideak izendatzen dituen eta batzordeen osaera argitaratzen duena.*

Ikusirik Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 22ko Agindua, zeinaren bidez arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen baita –2022ko martxoaren 4ko EHAAn argitaratu zen–.

Kontuan izanda 2022ko otsailaren 22ko Aginduaren 8. artikulua xedatzen duela aipaturiko dirulaguntzak emateko modalitate bakoitzeko balorazio-batzorde bana osatuko dela eta batzorde horietako bokalak Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko direla.

Horiek horrela, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak emateko balorazio-batzordeetako bokalak izendatzea eta batzordeen osaera argitaratzea. Beraz, batzordeek honako kide hauek izango dituzte:

A. Arte eszenikoetako profesionalen etengabeko prestakuntzarako laguntzak:

Lehendakaria: Aitziber Atorrasagasti Calcedo, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Bokalak:

- Vene Herreros Heras.
- Miren Amaia Lizarralde Gorosabel.
- Natalia Monge Gomez.

Idazkaria: Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria.

B. Arte eszenikoak sustatzeko egitasmoetarako laguntzak:

Lehendakaria: Aitziber Atorrasagasti Calcedo, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Bokalak:

- Amaia Gabilondo Jauregui.
- Jose Luis Gonzalez Blanco.
- Ines Delgado Gracia.

Idazkaria: Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria.

2022ko apirilaren 20a, asteazkena

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.